

# elkar

liburuak
musika
nobedadeak

www.elkar.com 2010eko uda 20. zenbakia

## Mariasun Landa

**Literatura bizimodu**

## MUJERES DETECTIVES

**SABUESAS EN UN MUNDO DE HOMBRES**

## Izen propioak:

**Joxan Ormazabal, Unai Elorriaga, Maddalen Iriarte, Arantxa Urretabizkaia**




# ZER EGITEN DUZU LO?

## Ez ahaztu elkar txartelaren puntuak erabiltzea.

**2010 baino lehen eskuratutako puntuek ekainaren 30ean galtzen dute balioa. Ez galdu liburuak, diskoak edo DVDak merkeago lortzeko aukera.**



## 120.000 kultura zale

**elkar** liburu denda sarearen aldeko aukera egin dute dagoeneko 120.000 lagunek eta kopurua haziz doa egunez egun, etenik gabe. 2003. urtean sortu zen, **elkar** txartelaren bitartez, liburu denda kate honen jarraitzaileen komunitateko kide izateko aukera. Geroztik, milaka kulturazale lotu zaio taldeari.

**elkar** komunitatea handitzen eta sendotzen doan bezala, gero eta gehiago bihurtzen da gizatalde hori **elkar** taldearen helburu eta baita oinarri ere. Guztion arteko hartu-e,manetiktik sortzen den ezagutzak eskaintza eta zerbitzua egokitzeko aukera ematen du. **elkar** komunitateak erakusten dio liburuzaleari zer nahi duen, zein den bere gogoa, zein premia dituen, nondik jo nahi duen bere aisia kulturaz betetzeko unean. Eta **elkar** komunitateko kidea kulturazale aditua da, zorrotza, kalitatea bilatzen eta eskatzen duena. Etenik gabe handitzen doan 120.000ko kopuruak nabarmen uzten du **elkar** komunitateak erakusten duen bide hori bide egokia dela.

Txartela lortuz komunitate honetako kide bihurtzea doakoa da. Trukean hainbat abantaila lortzen dira: txarteldunak % 10 merkeago du euskal musika, % 5 merkeago liburuak (legeak baimentzen duen bezainbeste) eta baita papertegiko materiala ere, eta horiez gain, abantaila gehigarri diren puntuak sortuko ditu txarteldunak erosketa bakoitzean. **elkar** aldizkari hau ere, elkar zaleen etxeetaraino iristen da lehenik, liburu dendara ere ailegatu aurretik, liburuen eta musikaren inguruko kultur berriekin.

Kultur saria du txarteldun izateak, aisia kulturaz betez gozatzen dutenen txartela baita elkar txartela.




## 120.000 amantes de la cultura

Ya son más de 120.000 los amantes de la cultura que han apostado por la red de librerías **elkar**. El año 2003 empezó a tomar forma la comunidad **elkar**, con la puesta en funcionamiento de la tarjeta **elkar**. La acogida por parte de los lectores ha sido excelente desde el principio y el número de nuevos miembros sigue en progresión ascendente.

A medida que crece en volumen, la comunidad **elkar** cobra cada vez más importancia en el día a día en la actividad de las librerías. La información y el conocimiento que se genera de la interacción entre libreros y lectores posibilita adecuar y mejorar continuamente los servicios y la oferta de **elkar**. La comunidad es quien señala al librero qué es lo que desea, qué necesita, cómo quiere llenar su tiempo de ocio cultural. Los miembros de la comunidad **elkar** son los expertos, saben lo que quieren, son rigurosos, buscan calidad y la exigen. El número de 120.000 asociados a la comunidad que sigue creciendo día a día, reafirma a **elkar** en el camino elegido.

La obtención de la tarjeta es totalmente gratuita, y a cambio, el poseedor de la tarjeta se beneficiará de múltiples ventajas: 10% de rebaja en toda la música en euskera, 5% de descuento en los libros (máximo que permite la ley) y material de papelería, además de la ventaja complementaria que supone los puntos generados en cada compra. Completa el abanico de beneficios esta revista **elkar**, que reciben gratuitamente los miembros de la comunidad **elkar** en sus hogares.

Poseer la tarjeta **elkar** tiene premio cultural, es la tarjeta de los que gozan llenando el ocio de cultura.

Kontseilu editoriala
Eli Betelu eta Mikel Arrizabalaga
L.G./D.L. SS-598/06



# MARIASUN LANDA

## "ESPERIENTZIA ETA SENTIMENDU PERTSONALETATIK ABIATZEA GUSTATZEN ZAIT"



Juantxo Egaña




Mariasun Landa gehien itzuli den euskal idazleetako bat da. Haur literaturara bueltatu berria da, orain bi urte helduentzat eleberri autobiografikoa idatzi ondoren. Ipuin harrigarria egin du berriro, irakurleari eragingo dion horietakoa, dagoeneko Cruïlla argitaletxeak katalanera itzuli duena.
Ipuin berriak idazle eta EHUko literatur irakaslearekin hitz egitera eraman gaitu.

**Has gaitezen paradisutik, zure azken argitalpena: Ipurtargiak paradisuan.**
Nafarroa Oinez-etik ipuin bat eskatu zidaten esanaz gogoan hartzeko Argiñe maskota ipurtargia eta beren leloa: "Txikia handi." Informatzera jo eta aurkitu nuen Japoniako literaturan zeinen erabiliak ziren ipurtargiak maitasunaren animaliatxo gisa. Elementu horiekin inoiz pentsatuko ez nuen leku batera joan nintzen: paradisura.
Bi enamoraturen bila joan eta Adan eta Eba aurkitu nituen.

**Ipuin polit harrigarria da, baina agian zu zeu harrituena?**
Batzuetan enkarguek behartu egiten zaituzte gai batzuk tratatzera edo erronka berriak jartzera zure buruari. Gai honek oso gustura sartu naizen mundu batera eraman nau. Pentsatu nahi dut jarraituko dudala paradisu inguruko erdi fantasia erdi utopia izan daitekeen espazio mitiko horretan.
Lehen irakurleentzat eta tamaina txikiko narrazioa da. Narrazio laburrean ekonomia handiz jokatu behar duzu, hitzak eta ekintzak aukeratu eta denbora gutxian kontatu zerbait oso interesgarria eta batzuetan sakona, modu xume eta era berean landuan. Haurrak txintxoak dira eta irakurtzeko esatean, irakurri egiten dute, hasi eta buka, baina ez dira tontoak eta badakite noiz dagoen istorio interesantea eta noiz ez.
**Adan eta Eba, Paradisua, "*gero sagarrarena gertatu zen...*" Guraso askori lana jarri diezu ipuin honekin.**
Ondoren etorri da sorpresa hori, haur batzuek ez ezagutzea Adan eta Eba. Niretzat sintoma kezkagarria da, agian nahastu egin baitugu zer den erlijioa bere moraltasunarekin eta ondare kultural judeo-kristaua. Gu kultura horretakoak gara, hori da jaso duguna. Haurrei Bibliako pasarte zenbait ez aipatu izana sekula normala da, baina Biblia istorio fantastiko zoragarri pila bat biltzen dituen liburua da. Nik uste, oinarri oinarrian, nire kultura literarioan istorio hauek guztiak daudela. Jo nuen ustez oso ezagunak ziren pertsonaia batzuengana, eta egia esan, ni neu, oso pozik gelditu naiz.
**Paris han dago, hurbil edo urruti?**
Oso hurbil!

> *"Literaturak badauka prestigio soziala, baina hutsune handiak daude."*

**Aurreko liburua, *Festa aldamenekogelan*, Parisen gertatzen zen. Helduentzako lan luzea izan zen hura. Bi urtera zein balorazio egiten duzu?**
Helduentzako, gazteleraz idatzitakoa, aspaldiko proiektua... urtetan hor zegoena. Ni lau urte bizi izan nintzen Parisen, liburuan lehenengoa kontatu nuen.
Liburu onestua da, kontakizun autobiografikoa egiten saiatu nintzen, eta pozik nago emaitzarekin. Genero autobiografikoan kontakizunak, benetan hala izan zela konstatatzeko modukoa izan behar du eta egon behar du itun autobiografikoa irakurlearekin, egia izan behar du bi aldeentzat. Bestalde, genero horrek irakurlea etengabe interpelatzen du. Nik oso ondo pasatzen dut autobiografiak irakurtzen, etengabe

pentsarazten didalako nigan.
Sinesten dut baita ere adin batetik aurrera badagoela behar bat norberaren bizitza laburbiltzeko, sintesi bat egiteko, narrazio hori eraikitzeko eta transmititzeko. Alde horretatik liburu honek satisfazio handiak eman dizkit.
Berriki gazteen errekonozimendua jaso du liburu honek, Juul saria, Nafarroako Batxillergo mailako gazteek ematen duten saria.

**Jasotako erantzunak aurreko liburuenak baino gehiago bete zaitu ?**

Satisfazio modu ezberdinak dira, ez gehiago eta ez gutxiago. Nik uste nitaz asko hitz egin dudala nire haur eta gazte liburuetan ere, baina mozorrotuta. Beti izan zait motibagarria nire esperientzia eta sentimendu pertsonaletatik abiatzea. Iruditzen zait ematen ahal duzun onena hori dela. Lanak originaltasun apur bat izango badu hortik egongo da.
Parisekoan, heldu zen momentu bat nire bizitzan, non prest nengoen mozorrorik gabe hitz egiteko. Batzuk esaten zidaten biluztu nintzela; aldiz, hemendik kanpo esan izan didate fintasunez eta era neurtuan kontatzen dudala.

**Kontakizun autobiografikoaren bidetik jarraitzeko asmorik bai?**

Bai, ez dakit noiz, baina bai.

**Lehen aupair joaten zineten atzerrira, gaur egun Erasmus bekak baliatuz joaten dira.**

Askok ikasten duten bitartean lan egiten dute, beste batzuk, berriz, oso bizimodu eroso batetik datoz, natural ikusten dute hori, gero Erasmus batekin joatea eta etortzen direnean lanik ez aurkitzea harrigarria egiten zaie... Belaunaldi honi asko eman zaio maila materialean. Orain independiente izateko iruditzen zaie behar dutela apartamendu bat, eta lan bat, eta gizarteak zor diela hori. Hala ere, funtsean, orain dela 40 urte nik bizitakoa eta gazte batek orain bere baitan bizi duena, agian ez daude horren urruti. Gurasoengandik banatu, norberak bere bidea aurkitu, independentzia fisikoa lortu, eta barrutik ere niaren sentsazio hori, nor naiz, zer egin nahi dut... erantzun behar diote eta erantzuten diote, baina inguru erosoagoan.

**Magisteritzara iristen diren zure ikasleen literatur ezagutza maila nola baloratuko zenuke**?

Ai... Belaunaldien arteko amildegia izugarria da! Egungo gazteek guk genituen erreferentzia kanonikoak ez dituzte, erreferentzia zinematografikoak ere ez... Gauzak hain azkar doaz aldatzen, benetan zailena izaten da ikasle eta irakasleen arteko puntu amankomunak aurkitzea. Orain urte batzuk, heroiaren ibilbide kanonikoa esplikatzeko balia nintekeen Indiana Jones pertsonaiaz. Orain ez dute Indiana ezagutzen. Dagoeneko inposibletzat jo behar duzu Flauverten Madame Bobary zein den jakitea, edo Txomin Agirreren Garoa... Urtetan baliagarri izan den imaginario kolektibo batetaz ari naiz. Hori dena eten egin da. Nire susmoa da beraien erreferentzia nagusiak telebistaren bitartez jasotakoak direla.

*"Gaitasun linguistikoa eta gaitasun literarioa bereiztu beharko genituzke."*

Dena den, ez da paso egiten duen belaunaldia, interes handia dute, jakinmina. Ondo moldatzen naiz ikasleekin, asko hitz egiten dugu.

**Parisen lau urte eginda, herrira itzuli eta ikastola batean hasi zinen lanean**...

Nire familia euskalduna da, baina erdaraz hitz egiten zuena. Hala ere nik beti neukan euskara ikasi nahia eta beharra, zauria bezala zen. Sortzen ziren aukera guztiak baliatu nituen, baina hizkuntza bat ikasteak beste integrazio bat eskatzen du eta horretara dedikatzea. Parisetik etorrita aukera bakarra ikastoletakoa izan zen.

**Zarautzeko Salbatore Mitxelena ikastolan gero euskal kulturan izen handi bihurtu diren askorekin egokitu zinen: Joxan Ormazabal, Andu Lertxundi, Imanol Urbieta, Txiliku, Elexpuru... Zugan eragina izango zuen, noski.**

Nik garbi neukan idazle izan nahi nuela. Euskaraz eta haur literaturan hastea bai da ikastolaren eragina edo ondorioa. Une hartan bildu zen talde sortzaile indartsu bat, oso giro aproposa aurkitu nuen bide hura hartzeko. Ziur nago euskara ikasi gabe ere idatziko nuela, baina agian ez haur literatura. Hori egon da lotuta euskararen alde egindako hautuarekin.

**Zein da zure pertsonaiarik kuttunena?**

Iholdi. Alter ego bat da.

**Zein da sarrien irakurri duzun liburua?**

Italo Calvinoren *Seis propuestas para el próximo milenio*. Bertan aurkezten du beretzat literaturak ze ezaugarri izan beharko lituzkeen. Erreferente teoriko on bat da.

**Zure webgunean diozu: "Joan zen atzokoa, misterioa biharkoa da, oparia gaurkoa."**

Bizi behar da bizitza egunero, orduero. Iragana historia da, importantea, baina ez gaitu gehiegi lotu eta amargatu behar. Nostalgia uxatu egin behar da pixka bat. Bizitza, adinarekin are gehiago, opari bat da. Jende asko falta zaigu jada, Asun Balzola, Joxan Ormazabal...

**Nola bizi duzu heriotza?**

Garbi dago joaten den bakoitzarekin gure bizitzaren parte bat ere joaten dela, gu ere hil egiten gara pixka bat. Hutsunea uzten du eta nekez betetzen da. Momentu batetik aurrera hasten zara joan direnekin bizitzen bertan daudenekin adina. Joandakoak ere presente ditugu. Nik behintzat integratu nahi ditut nire bizitzan. Batez ere ez baduzu erlijio berezirik, zentzua ere badauka hil direnekin kohabitatzea normalidade goxo batean.



"Eskolak behar ditu espazioak irakurketa librerako, esperientzia literarioa gerta dadin"

**Etorkizuneko irakasleen formazioan zabiltza EHUn. Ondo ari al gara irakaskuntzan literaturari dagokionean?**

Uste dut une honetan eskolari dena eskatzen zaiola. Hori aitortu egin behar da. Eskatzen zaizkie hiritar irakurzaleak, ekologistak, demokratikoak... non daude familia eta gurasoak? Hemen utzikeria handia egin da beste sektore batzuetatik. Ahozko transmisioan ere huts handia dago.
Irakasleek formazio literario on bat eduki beharko lukete, ez hizkuntzaren menpekoa. Gaitasun linguistikoa eta gaitasun literarioa bereiztu beharko genituzke. Irakasle asko ez dira irakurzaleak; gurasoak berdin. Gaitasun literarioak suposatzen du haurrei ematen zaien liburu zerrenda horiek sailkatuta egon beharko luketela ez bakarrik adinaz, baizik eta gela horretako ikasle horien gaitasunen arabera. Liburuen zerrendetan zerbait tiranikoa ikusten dut nik: adinaren araberakoak dira, ez gaitasun literarioen araberakoak.

**Planifikazio berri eta handi batez ari zara.**

Literaturarekiko maitasun serioa behar da, errespetu serioa. Literaturak badauka prestigio soziala, baina prestigio barrutik ustel samarra. Ez dago konbentzimenturik esperientzia literarioaz, esperientzia zoragarri hori non irakurleak topo egiten duen liburu batekin, bat egiten duen berarekin, eta liburu horrek transformatu egiten duen irakurlea. Esperientzia hori oso aberatsa eta pertsonala da, ez da gertatzen berdin denongan. Hori gertatzen denean, berriro bueltatzen zara irakurketara, berriro bilatzen da emozio hori. Niretzako eskolak bilatu beharko lituzke espazio batzuk irakurketa librerako, esperientzia literario hori eman dadin.

# UDARA HONETAN BEHAR DUZUN GUZTIA, ORRIALDE HAUETAN AURKITUKO DUZU.

VERANO

PVP 16,00 €




Una obra para reír y no parar. El mejor humor del sur.

PVP 16,50 €




Aprende a gestionar la calidad.

PVP 14,95 €




La nueva novela de la Saga Crepúsculo

PVP 19,90 €




Los limites de la verdad y la mentira.

PVP 19,50 €




Hay recuerdos que siempre vuelven para quedarse.

PVP 22,00 €




Una peregrinación a Santiago de Compostela en el Año Mil.

PVP 22,50 €




Una novela que te tiene en jaque hasta el final.

PVP 17,50 €




Con qué pocas palabras puede desatarse la pasión.

PVP 17,00 €




Un escenario y un tiempo alegóricos para retratar la esencia de las dictaduras.

GrupoSantillana

ESTE VERANO TODO LO NECESARIO ESTÁ EN ESTAS PÁGINAS



# MADDALEN IRIARTE *proposamena*

Gure baserrietako edozeinetara ikertzaile bat bidali, eta urteko lehen egunetik azaroaren 10ra arte, egunero egunero, etxaldeko zerrietako baten bizimodua aztertzen jarriko bagenu, egunero abereak zenbat jaten duen apuntatuz, egunero zerria pisatuz eta zenbat gramo irabazi dituen zehaztuz...behar bada oso datu interesgarriak jasoko genituzke baina aldi berean sekulako hanka sartzea egingo genuke. Ordura arte bildutako datuekin egin daitezkeen hipotesiek ez dute ezertarako balioko. Izan ere, ikerketa amaitu eta biharamunean, San Martin egunez (azaroak 11), akabo zerria, eta akabo zerriak ordura arte izandako bizimodu erosoa!




Zisne beltza deitzen die Nassim Nicholas Taleb broker estatubatuarrak ezusteko gertaera horiei. Ezustekoak, itxura guztien arabera ziurrenik gertatuko ez direnak (baina gerta litezkeenak), eta deskuidoan gertatzen badira, egoera goitik behera irauli dezaketenak, eta askotan iraultzen dutenak gainera (galdetu bestela zerriari!) Liburu erdi-filosofiko erdi-autolaguntzakoa den honetan, Talebek dio, gizakiok, biologiak eta eboluzioak hala bultzatuta, egoera konplexuenei ere esplikazio sinpleak aurkitzeko joera zuzentezina dugula –sinpleegiak—eta mundua ulertzeko guk asmatzen dugun marko horri ondo moldatzen ez zaizkion elementuak alboratu egiten ditugula, esistituko ez balira bezala bizitzeko joera dugula. Eta alderantziz: behin ezustekoa gertatuta, gauza garela ustez txalogarria den esplikazio bat aurkitzeko, baina hori bai, a posteriori. Hori guztia, dio Talebek, bereziki arlo sozioekonomikoan.

Liburua 2007an kaleratu zuen ingelesez, krisi ekonomikoa ofizialki hastear zegoela, eta orain Talebek dio krisia eragin zuten bankuen porrota ez dela izan, inolaz ere, zisne beltza. Abioi bat pilotu mozkor eta itsu baten esku utziz gero, lehentxeago edo beranduxeago, ikusia dago zer gertatuko den. Gauza bera gertatu omen da ekonomiarekin. Niri ordea, krisi ekonomikoa baino gehiago Euskal Herriko egoera politikoa etorri zait burura Taleben liburua irakurtzean. Eta iruditzen zait ez diogula behar hainbat erreparatzen gurean Zisne Beltzak (gogoratu: ezustekoak, pentsaezinak, gezurra diruditenak...) sortzeko ahalmena duten hainbat protagonistari, pentsatuz dena kontrolpean daukagula. Baina gauza bat geratu zait argi Taleben liburua irakurrita: fenomeno naturalak alde batera utzita (lurrikarak...) Zisne Beltzak sortu egin daitezke. Fabrikatu. Eta kakoa fabrikatzailearen intentzioetan dago.





# SABUESAS
## EN UN MUNDO DE HOMBRES

¿Qué tienen en común la encantadora y fisgona anciana Miss Marple y la asocial y algo punky hacker Lisbeth Salander? Muchas cosas, como bien saben los lectores de novela policíaca. Comparten sagacidad, inteligencia, curiosidad, olfato y, por encima de todo, popularidad. Y habitan un mundo de hombres, el de los detectives, plagado de figuras varoniles. Sin embargo, estas criaturas creadas respectivamente por Agatha Christie y Stieg Larsson no están sólas. En las más de siete décadas que separan sus existencias, encontramos interesantes investigadoras cuya pista conviene seguir.

"Hammett reservaba a la mujer los papeles de las tres uves: vírgen, víctima o vampiresa. Chandler siempre creaba personajes en los que la mujer era la responsable del mal". Son palabras de la escritora Sara Paretsky (Kansas, 1947) quien, para echar abajo esos estereotipos machistas, ideó a su particular heroína: la abogada **Victoria Ifigenia Warshawski**, una detective privada de los barrios altos de Chicago, que lo mismo bebe whisky de marca y escucha ópera, que se lía a puñetazos cuando la acción lo requiere. La protagonista de *Lista Negra* y *Golpe de sangre* es tan popular en los países anglosajones como lo es **Kinsey Milhone,** detective con la que la escritora Sue Grafton (Kentucky, 1940) ha vendido millones de libros. La serie, que, comenzando con *A de Adulterio* utiliza siempre el abecedario para titular, se publica en 28 países y 26 idiomas. ¿El secreto de su éxito? Que, paralelamente al desarrollo de la intriga, nos cuenta los avatares sentimentales y sexuales de la enarmoradiza detective, lo que garantiza el entretenimiento.

Pero, si hablamos de super ventas, tenemos que citar a **Anastasia P. Kamenskaya.** Es la protagonista de títulos como *Muerte y un poco de amor* o *Asesino a su pesar.* Su autora, la criminóloga Alexandra Marínina, trabajó para la policía rusa antes de tener el acierto de crear un personaje que despierta las simpatías de los lectores, seguramente porque es perezosa, de físico corriente, y torpe con las armas. Es decir, humana.

Otra que pisa fuerte es la policía **Charlie Zailer**, una mujer obstinada, malhumorada, autoritaria y promiscua, enamorada secretamente de su colega de trabajo Simon Waterhouse. Ambos personajes son creación de Sophie Hannah (Manchester, Inglaterra, 1971), autora de novelas como *No es mi hija* o *Matar de amor*, a la que ya denominan "la nueva reina británica del *thriller* psicológico".

Pero, si de letras británicas hablamos, no hay que perder de vista a Lynda La Plante (Liverpool, 1946), autora de la mítica serie de televisión *Prime Suspect*, que protagoniza Helen Mirren. De La Plante se acaba de publicar *Más allá de la sospecha*, la primera obra de una nueva serie protagonizada por la joven e inexperta policía **Anna Travis**.

El mundo del thriller anglosajón tiene otras detectives míticas, como la elegante y sofisticada forense **Kay Skarpetta** de Patricia Cornwell (Miami, 1956). Los amantes de las técnicas de investigación gustan de esta serie porque explica muy bien los procesos y avances en este







En euskera también tenemos a nuestra detective, la suletina Amaia Ezpeldoi, creada por Itxaro Borda en 1994.

campo. *Post Mortem, El cuerpo del delito* o *La huella* son algunos de sus títulos más famosos.

También es un referente **Charlotte Pitt**, la esposa del detective Thomas Pitt, creada por la prolífica escritora Anne Perry (Londres, 1938) para su serie de novelas policíacas ambientadas en la época victoriana que reconstruyen el ambiente político y social de la época. Desde que en 1979 se publicó *Los crímenes de Cater Street*, la sagacidad del ama de casa Charlote Pitt y su amiga **Lady Vespasia**, una aristócrata a la que aburren las convenciones sociales y divierten los enigmas policiales, se reveló como toda una fórmula de éxito.

Las letras británicas nos han dejado otras originales detectives. Como **Cordelia Gray**, que aparece en 1972 en la novela de irónico título *Un trabajo poco adecuado para una mujer,* de la veterana P. D. James (Oxford, 1920), o **Kathryn Swinbrooke,** la médico, farmacéutica y sangradora de la Edad Media que aparece en siete novelas de C. L. Grace, uno de los numerosos seudónimos del prolífico escritor británico Paul C. Doherty (Inglaterra, 1946). Pero, para reírse un rato, nada mejor que seguir las andanzas de **Stephanie Plum**, la cazarecompensas surgida de la pluma de Janet Evanovich (New Jersey, 1943). Ligona, compradora compulsiva de lencería y destroza-coches, es ayudada en sus investigaciones por la abuela Mazur, cuya afición principal es acudir a funerales. *Entre pillas anda el juego, Qué vida esta, Corazón congelado* o *Cuestión de suerte* son algunas de sus novelas traducidas al castellano.

## LAS NÓRDICAS

Desde que el escritor sueco Henning Mankell (Estocolmo, 1948) irrumpió en las listas de los más vendidos, la literatura policíaca nórdica no ha parado de crecer, alcanzando su cénit con la triología *Millenium* del malogrado Stieg Larsson. Pero, dejando aparte a la archiconocida **Lisbeth Salander,** y sin olvidarnos de **Linda Wallander**, la hija del detective Kurt Wallander, a la que Mankell dio el testigo en *Antes de que hiele*, rondan por esas tierras un puñado de investigadoras en las que merece la pena detenerse.

*La diosa ciega* -elegida la mejor novela criminal de Noruega en 1994- es el primero de los siete libros de Anne Holt (Larvic, Noruega, 1958) que protagoniza **Hanne Wilhelmsen**. Estamos ante una detective muy competente, pero mal avenida con sus compañeros. Lesbiana, tenaz e inconformista, sus investigaciones dejan al aire las injusticias sociales que tanto gusta destapar la novela nórdica.

Äsa Larsson (Upssala, Suecia, 1966), la celebrada autora de *Aurora Boreal*, nos obsequia con dos fuertes protagonistas femeninos: **Rebecka Martinsson**, abogada como la autora, y la embarazada inspectora jefe **Anna-Maria Mella**, personaje inspirado en la protagonista de la película *Fargo,* de los Coen. Ambos personajes repiten protagonismo en *Sangre derramada*, novela tan adictiva como la anterior.

*La princesa de hielo,* el gran éxito de Camilla Läckberg, también concede el protagonismo a una mujer, concretamente a la escritora **Erica Falck,** a la que en el primer libro conocimos soltera, embarazada en *Los gritos del pasado* y madre de una niña en *Las hijas del frío*. Lo último que nos acaba de llegar de Läckberg es *Crimen en directo*.

En la literatura en castellano destacan dos mujeres detectives: **Petra Delicado** y **Virgina Chamorro.** La primera, una creación de Alicia Giménez-Bartlett, es una inspectora de policía dura, idealista y algo irónica. Divorciada y con una vida sentimental agitada, en *El Silencio de los claustros* acaba casándose con el hombre que conoció en *Nido vacío*. En cuanto a **Virginia Chamorro,** es una guardia civil, hija del exitoso escritor Lorenzo Silva, aficionada a la astronomía y que, al contrario que su compañero, el brigada Vila, no ha perdido del todo la fe en la justicia. El último título de esta serie es *La estrategia del agua*.

Finalmente, en euskera también tenemos a nuestra detective, la suletina **Amaia Ezpeldoi**, creada por Itxaro Borda en 1994, que ha protagonizado cuatro novelas y que saca a la luz cuestiones que van más allá de la trama detectivesca, como su propia orientación sexual.

**Karolina Almagia**
kazetaria




# La sal de la vida

Una novela de

ANNA GAVALDA

«*La sal de la vida* es un relato alegre, lleno de sonrisas, de juegos, de reyes, reinas y ases, que nos recuerda que todo es posible todavía», Anna Gavalda.

«Imagina un libro que hace que te brillen los ojos, que te da alas, una vacuna contra la tristeza y el mal humor. ¿Te sientes tentado? Entonces sigue el camino de la loca escapada de estos cuatro hermanos maravillosos», *Elle*.

«Un homenaje a los hermanos, compañeros imborrables de nuestra infancia. Un puro Gavalda, simple y generoso», *Le Point*.

Seix Barral

# elkar ARETOA



Ramon Zallo, Joan Mari Torrealdai y Txema Ramirez de la Piscina, en la presentación del libro *EGUNKARIA, la verdad de un sueño*.

Bilboko Iparragirre kaleko liburu denda goitik behera berritu ostean, berrinaugurazio ospakizuna egin da musikari eta idazleen laguntzaz. Aurki izango da Gasteizko San Prudentzioko dendaren txanda.













Stupenda Jones, Doctor Deseo, Kerobia... zuzeneko musikak girotzen da sarri **elkar aretoa.**

Durante el curso escolar, todos los sábados ha habido programación infantil en **elkar aretoa**. En la foto vemos a Odei Astibia disfrutando en el taller de percusión.







**elkar aretoa** se ha convertido en foro habitual para presentación de libros. En la foto la editora Antxiñe Mendizabal con los escritores Jon Arretxe y Maribel Aiartza.






Unai Elorriaga

LIBURUA MUNDU
MUNDUA LIBURU

# BURMUIN GAZTEAK

Halako egun jakin batean gorputzak krak egiten du, eta gorputzari buruz ari naizenean, buruari buruz ere ari naiz, eta batez ere buruari buruz. Beraz, buruak krak egiten du une jakin batean beti, eta halakoak gertatzen direnean, akordioa dago gizartean: krak egin duen gorputzari, eta ondorioz buruari, zaharra esaten diogu. Gizaki batzuek zorte trabesagoa daukate eta buruak krak egiten die hogeita bi urterekin edo hamazazpirekin; horri zorte eskasa esaten zaio, ez zahartzaroa.

Literaturan, ematen du, ez dago zahartzaroarekiko joera handiegirik, zinean ez den bezala; aktore zahar gutxi dago eta nekez jokatzen dute lehen mailako paperik. Literatura sortzaileen artean, ostera, idazle zahar dezente dago. Tolstoi, esate baterako, zahar jaio zen. Lehen obrak hogeita lau urterekin argitaratu bazituen ere, zahar irudikatzen dugu beti. *Gerra eta bakea* 36 urterekin idazten hasi bazen ere, ehizan ari zela zalditik jausi, besoa apurtu eta osatzen ari zenean idatzi bazuen ere, gizon zahar bizarzuria izango da gure burmuinean beti.

José Saramago adinean aurrera zihoala hasi zen idazle ezagun egiten, baina haren liburuen atzean, nahiz eta laurogeita zazpi urte izan gaur egun, garun gazte bat dagoela iruditzen zaigu beti, *Itsumenari buruzko saiakera* liburuan, esate baterako. Planteamendu gaztea dauka liburu horrek, idazleak hirurogeita hamahiru urterekin idatzi arren. Inor gutxik dakiena da, hala ere, Saramagok Tolstoi itzuli zuela.

Bide beretik jarraituta, badira liburu asko protagonista zahar batek kontatuak, zahartzaroaren muinetik, baina gaztaroko oroitzapenak kontatzeko erabiliak. Mila adibide eman litezke, baina argienetako bat Umberto Ecoren *Arrosaren izena* izan daiteke. Gazte-gaztea zeneko oroitzapen multzoa kontatzen digu Adso de Melk frantziskotar zaharrak. Ildo horretatik abiatu zen beste egile italiar bat, Antonio Tabucchi, *Tristano hiltzen ari da* eleberrian.



ELENA ODRIOZOLA

Baina badira, nola ez dira izango, protagonista zaharreko eleberriak. Hego Ameriketan, Kolonbian hain zuzen, bada idazle bibotedun bat, Saramagok bezala Suediatik pasatutakoa, portugaldarra baino bost urte gazteagoa, *El coronel no tiene quien le escriba* izeneko liburua argitaratu zuena. Oilarrak aipatzen ditu liburuan, joandako semeak aipatzen ditu, heltzen ez diren gutunak aipatzen ditu, baina, batez ere, koronelaren zahartzaroa kontatzen du Gabriel García Márquezek.

Heinrich Böllen liburu berezi bat aipatu beharko genuke, noski: *Billarra bederatzi eta erdietan*. Arkitekto alemaniarren hiru belaunaldi ari dira eleberri honetan, baina bereziki zaharrenari erreparatu beharko zaio, gaztetatik bizitza osoa planifikatuta zeukan arkitekto zaharrari, munduko gerrarik hanpatuenak bizi behar izan zituen gizonari.

Espainiako literaturan kasu argiak daude, oso ezagunak. Irakurle asko izan dituzte José Luis Sampedroren *La sonrisa etrusca* edo Julio Llamazaresen *La lluvia amarilla* liburuek. Lehenengoa ia hirurogeita hamar urterekin idatzi zuen Sampedrok, ondo ezagutzen zuen kontua beraz, eta bigarrena herri txiki bateko azken biztanleaz ari da. Llamazares, hortaz, gizakien zahartzaroaz ez ezik, espazioen zahartzaroaz ere ari da. Baina Espainiako literaturari tiraka, zenbat urte zituen Don Quijotek bidaiak hasi zituenean? Guretzat, adinari begiratuta, zaharra izan ez arren, nortzuk ziren zaharrak XVII. mendean?

Euskal literaturan ere bada hainbat kasu. Nork ez du gogoratzen Domingo Agirre abadearen *Garoa* liburuko zazpi oin eta erdi luze zen eta hirurogeita hamabi udaberri pasatu arren, txori txikienen txio-txioa eta zugatz ostroen pirpir biguna entzun zezakeen Joanes artzaia? Baina gure saltsetara gehiago hurbiltzeko, zahartzaroaren eta zaharren oroitzapenei begirada abilezia handikoa aurki daiteke Uxue Alberdiren *Auki-jokoa* eleberrian, esate baterako.

Esandakoak esanda, aitortu behar da, oro har, guri, zaharroi, ez digutela kasu gehiegi ere egiten liburu zaharretan. Baliteke ebookean arrakasta handiagoa izatea.

# Libros en la mochila

¿Quién no ha experimentado alguna vez la inolvidable vivencia de un viaje vinculada a la lectura de un buen libro? Todos a lo largo de nuestra vida hemos tenido la oportunidad de realizar alguna escapada para conocer otras culturas, otras geografías tanto humanas como paisajísticas, y en un momento dado hemos decidido incorporar a nuestra mochila algún ejemplar pensando en esos preciosos tiempos que vamos reservando para la lectura. Momentos de descanso, de evasión, de introspección, tras una larga jornada llena de emociones y descubrimientos. Es entonces cuando hemos buscado esa orilla, ese prado, ese rincón silencioso bajo un cielo infinito y protector, para sumergirnos en otra aventura paralela, un viaje interior, de la mano de ese texto que imaginaremos escrito expresamente para nosotros, para ese instante mágico que estamos viviendo.

**Karolina Sainz de Bikuña**



## Alberto Berzal
**NEW YORK**

El actor azpeitiarra, ligado a series como “Cuéntame” o “Goenkale”, filmes como “Zorion Perfektua” junto a Anne Igartiburu, u obras de teatro como *Crímen y Castigo* de Dostoyevsky o “Splendids” de Jean Genet, es un gran viajero. Actualmente podemos verle en “Mugaldekoak”, la serie de éxito de ETB1 de la temporada.
Nueva York es uno de sus destinos favoritos y uno de los principales motivos para recalar en la gran manzana es el teatro. “*Todos eran mis hijos* de Arthur Miller es un texto de teatro que había leído ya, pero estando en Nueva York tuve la oportunidad de ver la función con un reparto excelente”. Salió entusiasmado del teatro y le faltó tiempo para ir a la librería e intentar encontrar una edición antigua. “Tengo el recuerdo de haber salido del teatro emocionado, y de volver a leer la función al día siguiente teniendo los personajes muy presentes. Es un drama familiar en el que los secretos, las mentiras, la hipocresía y los amores correspondidos y no correspondidos, con la Segunda Guerra Mundial de fondo, hacen que la vida de una familia siga funcionando con relativa tranquilidad, hasta que la verdad aparece y provoca un desenlace fatal”.
Dos de los posibles destinos que rondan la cabeza de Alberto para su próxima escapada son Buenos Aires o Vietnam. En el primer caso pasaría el tiempo viendo funciones de teatro y buscando textos. Para el segundo, de carácter más aventurero, se llevaría una buena guía de viajes.



## Juan Carlos Perez
**KERKYRA**

Inevitablemente vinculado al mítico grupo Itoiz, Juan Carlos es también un apasionado de los viajes y de la lectura.
En agosto de 1992 se encontraba de vacaciones en Corfú, Kerkyira para los locales. Así lo escribió en una de las primeras hojas de un libro que llevó consigo, *Mi familia y otros animales* de Gerald Durrell: “Esta casa en la falda de la montaña, encima del puerto, sobre unos limoneros y entre olivos y todo tipo de sonidos de pájaros e insectos, divisa al frente los montes y la costa de la vieja Albania y entre ella y nosotros pasan cargueros, pequeños barcos, guardacostas…”. Según nos cuenta Juan Carlos, *Mi familia y otros animales* podría ser en principio un libro de viajes desde la fría y húmeda Inglaterra al calor y a la luz del Mediterráneo, que luego se convierte en la crónica de la familia Durrell durante sus años de estancia en la isla griega de Corfú. Al día siguiente Juan Carlos anotó sobre una de las páginas del libro: “… también en nuestra familia tenemos un Larry Durrell, pero no es escritor como el de la novela, es una salamanquesa que vive en los muros de esta casa y que comparte con nosotros esta divina brisa de mar y esta alegría de vivir”.
Hay dos libros que Juan Carlos tiene esperando en la recámara desde hace tiempo: *Zazpi etxe Frantzian* y *Bilbao-New York-Bilbao*. Tal vez le gustaría leerlos en una isla griega. ¿Quizás Kerkyra?.



Jon Arretxe
**DELHI**

*Tubabu*, *Fatum* edo *Oroituz* eleberriak idatzi dituen idazle bizkaitarrak bere bi pasio handi hauei buruzko hitzaldiak ematen jarduten du azken urteetan, bidaiak eta literatura.
"Duela hainbat urte Delhira joan nintzen hegaz, bizikleta hegazkinaren barruan neramala. Nire helburua Indiako iparraldea eta Pakistan zeharkatuz Txinan sartzea zen. Bidaia hartan *Alkimista* liburua irakurri nuen, Coelhorena, eta hunkitu egin ninduen. Agian identifikatuta sentitu nintzelako liburuaren mezu nagusiarekin: zerbaiten bila ari da liburuko protagonista, bide luze eta neketsua eginez, eta azkenean konturatzen da bilatzen duen hori etxean daukala".
Jonek ez du oso gogoko bidaiak udan egitea, dena den egingo duen hurrengo irteera hori Tangerrera izango omen da ziurrenik, hantxe kokatuko baitu bere hurrengo liburua. Nobela beltza izango denez, seguruenik nobela beltz onen bat eramango du motxilan. Dennis Lehane gomendatu diote eta agian haren nobelaren bat izan daiteke aukeratutakoa.



Edurne Ormazabal
**CHILOÉ**

Komunikatzaile tolosarra duela hiru urte Chiloé izeneko irlan izan zen lagun batzuen etxean. Chileko hegoaldean aurkitzen den artxipelago batetan kokatzen da ugarte hau, "paisaiak munduko azken puntan bazeunde bezala sentiarazten zaitu, itsasargiak, itsas baztarrean eraikitako herritxoak, eliza dotoreak...". Edurnek haizearen soinua eta denboraren abiadura pausatuak gogoratzen ditu batez ere. "Haize hura, egun haietan irakurtzen aritu nintzen liburuarekin oso modu hestuan lotuta geratu da betirako nere barruan, Almudena Grandes-en *Los aires difíciles*. Guztiz txundituta utzi ninduten eleberri honetako pertsonaia guztiek, bai galtzaileek baita galduta aurkitzen zirenek ere. Azkenean denek aurkitzen zuten bere lekua bizitzan".
Uda honetan, oporrik izan ez arren, inoiz gehien gustatu zaion liburuetariko bat berriz ere irakurtzeko asmoa du, Mújica Laínez-en *Bomarzo*. Pier Orsini izeneko printzean oinarrituta dago, XVI. mendean bere emaztea zen Giulia Farneseren omenez munstro izugarriz betetako lorategi ikaragarri bat eraikiarazi zuen pertsonai historikoa.





UNA MÁGICA NOVELA SOBRE LAS TRAMPAS DEL DESEO, LA TRAGEDIA DEL AMOR Y LOS LAZOS INDESTRUCTIBLES DE LA FAMILIA.



PLAZA JANÉS
www.megustaleer.com












# JOXANEN
## LIBURUAK GURE GOGOAN



Joxantonio Ormazabalek txikitatik izan zuen hizkuntzarekin jolas egiteko joera, baina ahozko dohain hori landu gabe geratuko zen, segur aski, Juan Mari Lekuonak eta beste zenbait irakaslek zirikatu ez balute; era berean, ikastolako irakasle bihurturik zegoela, idazteko erraztasuna eduki arren beharbada ez zuen sekula argitaratzeko pausoa emango, baldin eta Joseba Jaka herrikide eta bultzagileak Elkar argitaletxean lanean hasteko proposamena egin ez balio. *Pernando Amezketarra* (1981) izan zen haren lehenengo liburua; sorkuntza baino gehiago, enkarguz egindako biltze eta apailatze lana, baina horretan ere abilezia berezia zuen Ormazabalek: esaldiak erraz eta gozo tolesten, herriaren umorearekin bat egiten eta, iragazkia ahalik eta gutxien nabarmenduz, herriari itzultzen. Bertsolari, kontalari eta xelebrekeriazale sen hori agerian utzi zuen beste zenbait bilketalanetan ere: bat *Lazkao Txiki* (1995) izan zen, Euskal Herri osoak ezagutzen zuen txiki handiaren pasadizoetan oinarritua, eta bestea *Antonio Bolas* (2002), gezurrak jolas bihurtzen zituen zegamar aparta Euskal Herrian barrena ezagutarazi zuena.

Sormen hutsezko lanei gagozkiela, haur txikientzako kontakizun goxo eta alaiak izan ziren Ormazabalen espezialitateetako bat, samurtasuna, fantasia eta umorea uztartzen zituztenak. Horien artean sar daitezke: *Kaskarintxo* (1982), *Margolin* (1983), *Kotti* (1984), *Patxibusa* (1985) lehen urteko lanen artean, eta beste hainbat, handik aurrera: *Saturna* (1992), *Txoria zezenaren adar gainean* (1999), *Josebiñe* (2000), *Gorritxo eta Beltxiko* (2000), *Hitz eta zaunka* (2009) edo *Zirkua amets* (2009) albuma. Istorio luzexeagoak dira *Maripertxenta* (1986) eta *Kittano* (1995), neskato sorgin bati eta arlote maitagarri bati buruzkoak, hurrenez hurren; hiru liburuko sorta berezi bat ere ondu zuen: *Amona bizikletan* (2000), *Aitona parapentean* (2004) eta *Aitona eta amona udalekuetan* (2007).

Ormazabalen irudimenaren beste alor bat ikasmaterialgintzaren beharrei loturik garatu zen: batez ere haur txikienentzako irakurgai arin, jostalari eta errazak idazteko eskatzen zitzaion, horretan beste inor baino trebeagoa zelakoan, eta eskari horretatik sortu ziren hainbat testu, batzuk ikasliburuen barruan gelditu zirenak, eta beste batzuk aparteko liburu bihurtu zirenak, hala nola: *Esaera zaharrak eta txiste berriak* (1981), *Hitzak jostailu* (1994) *Miru eta mara* (1996), *Zipriztin* (1996), *Hiztegi jolastia* (2002), *Irri eta barre* (2002).

Generoen mugak gainditzea gustatzen zitzaion, ipuinak eta poemak tartekatuz, hitz-korapiloak eta igarkizunak erabiliz. Azkenaldiko bere liburu pertsonaletan ere behin baino gehiagotan egin zituen era horretako nahasketak, eta horren adibide ditugu *Txoko txiki txukuna* (1998), *Bihotza zubi* (2001) edo *Amaren titixorroak* (2006).

Bestalde, liburuen munduan sortzaile bakartiaren irudia nagusitzen bada ere, ez da ahaztu behar Joxantonio Ormazabalek sarritan jardun zuela elkarlanean: gaztetan, dozenaka abestihitz idatzi zuen Imanol Urbietarentzat; geroago, Tapia eta Leturiak nahiz Imuntzo eta









Belokik behin baino gehiagotan musikatu zituzten haren letrak. Liburuetan ere, eskuz esku idatzi zituen zenbait ale Mariasun Landa zein Iñaki Zubeldiarekin, eta maiz hartzen zuen parte proiektu kolektiboetan, hala nola *Begira-begira, Egizu lo, Gure mundu txikitik*... Horrez gain, makina bat idazleren lanak euskaratu zituen Joxanek, bukaezina litzateke zerrenda aipatzen hasiz gero; aipa dezagun, ordea, euskal tradizioko ipuinak itxura modernoan emateen egindako lana: haren eskutik ezagutu dituzte azken hogei urteetako haur gehienek gure mitologiako kontakizun ederrenetakoak: *Makilakixki, Patxi errementaria, Barbantxo, Marizikin, Tartalo*... Ezin ahaztu harekin batera aritutako marrazkilariak ere, hala nola Elena Odriozola, Jon Zabaleta, Jesus Lucas...
Bizitza oso bateko lanari begira betekadaren sentipena sortu liteke; aipamen pare batekin gelditu nahi duenarentzat, Ormazabalen azken lanetako bi aipatuko ditut, testamentu literariotzat ere har ditzakegunak: *Ilunorduak eta argilaurdenak* (2007) eta *Ehun ipuin hitz gutxitan* (2010): lehenak poemen eta bigarrenak ipuinen bitartez, egilearen izaera ondo asko jasotzen dutenak: batetik, begirada garbi, jator eta baikor bat inguratzen gaituen munduari; bestetik, barne kezkatsu bat, larrimin existentzialetatik aparte ez dagoena: maitasuna, denbora, heriotza...
Joxanen presentzia galdu eta gero, haren hitzak baitira, neurri apal batean, idazlearen akordua gure artean berpiztuko dutenak.

**Xabier Mendiguren Elizegi**







# Ida-jira-bueltarik ez

Ez da erraza lagun baten agurra idaztea, are gutxiago nondik norakoak oraindik sinetsi ezinik eta ulertu ezinik gabiltzanean. Ez dakigu noiz ohartuko garen joan egin zaigula, ez diogula elkarri adarrik joko, ez dugula mahai beraren bueltan otordurik egingo; ez dugula telefono-deirik jasoko gurekin bazkaltzera datorrela esateko...
“Munduko pertsona bat gehiago naiz”, esan zuen elkarrizketa batean. Guretzat ez zen “beste pertsona” bat. Joxanen irudiak mundua ikusteko era berezi bat irudikatzen zuen gure baitan. Erraza zen Joxanen laguna izatea, erraza Joxanekin konektatzea. Ez genuen elkarri esplikazio handirik eman beharrik elkar ulertzeko.
Saiatzen ginen, berak zioen moduan, *normalak bagina bezala ibiltzen*, nahiz eta sarritan zaila gertatu.
Joxanekin beti irribarrez ibili beharra zegoen, gidoiak halaxe eskatzen zuen, halaxe behar zuen, ez zen irribarre fortzatua izan ohi, berezkoa baizik. Hark bidea jartzen zigun eta guk jarraitu, besterik ez.
Behorra libratzen zuenean, gu behorraren atzetik ia-ia hegan, batere esfortzurik gabe, batere behartu gabe, umorearen hegaldian.
Bere ipuinen amaiera zoriontsuek ez dute islarik izan bere bizitzaren amaieran; kontraesan hori gelditu zaigu ganbaran Joxanekin oroituko garen bakoitzean, harekin oroituko garen hainbat alditan.
*Ehun ipuin hitz gutxitan* argitaratu bezain laster, hainbat proiektu buruan zituela, utzi gaitu 2010eko maiatzaren 2an.
Hitz gutxiko mezuak zabaltzea atsegin zuen, mezu neurtuak, pausatuak, esanahi sakonekoak sarritan, besterik gabe jolastiak, beste askotan.
Bere azken urratsak ere halakoxeak izango ziren: pausatuak, neurtuak...
Ustekabean, *ida-jira-buelta*ko billeterik gabe joan zaigu. Hala ere, oraindik zain gaude...

**Lankideak**



BIDAIAK MENDIAK

# ESCENARIOS MÁGICOS

## CASCADAS DE EUSKAL HERRIA

Miles de kilómetros de ríos y arroyos recorren las montañas y valles de Euskal Herria. Por estos cauces fluye el agua que poco a poco ha esculpido algunos de los paisajes más bellos de las tierras vascas. Paisajes en los que generalmente el verde de los frondosos bosques o de los desconocidos musgos domina la estampa, pero en los que no faltan los tonos grises o blancos de las duras rocas que resisten el continuo desgaste del agua. Destacan, por su espectacularidad, algunas cascadas o saltos de agua, que causan gran expectación entre las personas que recorren los espacios naturales en los que se encuentran.

No es muy difícil acceder a algunos de estos espectaculares panoramas. Por ejemplo, llegar al impresionante salto del río Nervión, cuyas aguas caen en vertical unos 300 metros sobre el diapiro de Orduña, es muy sencillo, pudiendo disfrutarlo tanto desde su parte superior, aproximándose por la sierra de Gibijo o por sierra Salvada, como desde la parte inferior, dando un agradable paseo por el desfiladero de Delika. Igual de asombrosa es la cascada de Gujuli, formada por el arroyo Oiardo (afluente del Altube), muy próximo a Izarra. Desde el pueblo de Goiuri, en la carretera que une Orduña con Murgia, se llega en un corto paseo a esta maravillosa visión. El agua se desploma desde unos 100 metros de altura, aunque es una exhibición temporal, al igual que la anterior, ya que sólo son visibles en épocas de fuertes lluvias o durante el deshielo.

No son estas dos las únicas escenas de agua que pueden verse en estas tierras. En los límites orientales de Euskal Herria se localiza la impresionante garganta de Kakueta, cerca de Santa Grazi, cañón excavado en pleno Pirineo por el río Uhaitza y que esconde en su interior una bella cascada. Tras una hora de recorrido por el angosto desfiladero se llega a una surgencia de agua que mana desde la mismísima roca, en medio de la pared, y cae con toda su energía tapando la entrada a una pequeña gruta. También en zona pirenaica, pero en este caso en tierras navarras, puede disfrutarse de bellos saltos de agua. Bonito ejemplo es el entorno situado entre los valles de Belagua y Ansó, en Belabarze, que entre una frondosa e imponente vegetación oculta un bello entorno tallado por el agua, que junto a árboles y rocas da lugar a un ambiente casi mágico. Idílico es también el rincón de Navarra denominado Urederra, ubicado en la preciosa zona del Balcón de Pilatos, en pleno valle de Amezkoa. Se puede acceder a él desde Baquedano por un bello bosque que nos permite disfrutar de diversos saltos de agua, siendo éste uno de los puntos por donde desagua la imponente montaña de Urbasa.



Otro valle navarro, Baztan, alberga en su seno una de estas joyas talladas en la roca por el agua. Se trata del salto denominado Xorroxin. Desde Erratzu es posible acercarse a este peculiar escondite siguiendo un bello camino adornado con una variada gama de árboles, entre los que destacan centenarios castaños. En tierras alavesas también existe la posibilidad de disfrutar de fascinantes




RÍOS Y CASCADAS
Mikel Tellagorri
**Sua**
66 propuestas para conocer los ríos, nacederos, humedales, embalses, lagunas y cascadas de Euskal Herria. El libro está organizado en tres secciones: De Barbadun al Errobi, del Nervión a Belagua y del Ebro al Aragón. Las fotografías son de Alberto Muro.




ALTO NERVIÓN
JC Navarro y S. Velilla
**Sua**
Este libro propone 23 rutas para conocer el Alto Nervión, abrazada por tierras vizcaínas y burgalesas y situada en la parte noroccidental de Araba, en torno al río Nervión. Recorridos por valles, ríos y bosques se alternan con las altas planicies de Sierra Salvada y los amplios hayedos de Santiago y de Altube.




PARQUE NATURAL DE URBASA Y ANDÍA
Javier Rey Bacaicoa
**egn**
20 recorridos minuciosamente escogidos para descubrir y conocer a fondo este Parque Natural de Urbasa y Andia. Cada itinerario va acompañado de cartografía actualizada, y además, se incluye un mapa de gran formato de ambas sierras.

escenarios cuyo principal personaje es el agua. Uno de los puntos a destacar se localiza en el paradisiaco parque natural de Valderejo, donde el pequeño río Purón ha horadado la roca dando lugar a un lindo desfiladero, en el que puede disfrutarse de la visión de una admirable cascada. Otro espacio natural protegido, en este caso Gorbeia, también tiene entre su patrimonio natural algunas cascadas, como Aldabide, conjunto de saltos formados por las aguas que surgen a la luz tras recorrer escondidos rincones de Itxina, y a la que se puede llegar desde Urrigoiti en Orozko.

Pero son muchas más las esculturales cascadas que salpican estas tierras: Sintxita y Uguna (Gorbeia), Arrako (Belagua), Erroiarri (Artikutza), Irusta (Aiako Harria), Belako Harkaitzak (Ernio), Osinberde (Aralar), Eskatau (Entzia), Kobaundi (sierra Salvada), Aguaqué (Antoñana), Zirauntza (montes de Altzania), Artazul (Andia)... y posiblemente recorriendo paso a paso los ríos y arroyos vascos, el lector podrá encontrar otros bellos y desconocidos rincones con impresionantes saltos de agua.



**Amador Prieto**
es biólogo y miembro de la sección de Botánica de la Sociedad de Ciencias Naturales de Sestao y de la Fundación Urdaibai.




**PIRINEOS**
**TRAVESÍAS CIRCULARES ENTRE REFUGIOS**
Luis Alejos
**Sua**

PUNTUAK x2

Esta guía describe 60 circuitos a cumbres pirenaicas, enlanzando en el recorrido los refugios que se utilizan como campamento base al emprender su ascensión. Todas ellas están situadas en el sector de la cordillera entre el Midi d'Ossau y la Pica del Canigó.




**EL ATLAS DEL VIAJERO**
**EUROPA**
Mike Gerrard
**Evergreen**

Los 50 mejores destinos de Europa, con unas fotografías espléndidas. Cada uno de ellos cuenta con una sección de información práctica con datos sobre el clima, la moneda, direcciones útiles o conexiones de transporte para poder preparar el viaje con garantías.




**16 RUTAS PARA CONOCER IPAR EUSKAL HERRIA**
Amaia Ereñaga
**Mugalari**

Dieciséis detalladas rutas por carretera, planteadas a modo de recorridos por comarcas con características comunes y acompañadas de mapas, que nos abren el camino para conocer todos los secretos que encierran Lapurdi, Zuberoa y Behenafarroa.




**BAJO LOS CIELOS DE ASIA**
Iñaki Ochoa de Olza
**saga editorial**

Memorias del himalayista navarro fallecido en el Annapurna. Ocho da Olza murió en 2008 como consecuencia de un derrame cerebral a 7.400 metros de altura. Este relato lúcido y desnudo nos desvela cómo entendía él la montaña y la vida.




**PROVENZA Y LA COSTA AZUL**
Varios autores
**Lonely Planet**

Descripción de itinerarios, mapas, perfiles, hojas de ruta y un montón de datos prácticos dan cuerpo a esta exitosa guía, con muchas reediciones, y ahora totalmente actualizada. Te proponemos volver a viajar como lo hacían los antiguos peregrinos, pero a lomos de una bicicleta.



